

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

186n. Zenbakia Bagilla/Ekainilla  
1994



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



## DONIBANE LOITZUN

- ARRANTZALE-ERRIA
- EGOALDEKOEN IGES-LEKUA
- UDALEKUA
- ERRI EUSKALDUNA

## Ñ ETA LL'REN ARAZOA

PALMI'k, aldizkari onen 18n. zenbakian, Urtarrilla 1994, N eta LL aitatu ditu eta ez du arrazoirik falta. Bi izki oieri ez diete pakea eman eta banatu dituzte, I eta N alde batetik eta I eta L bestetik.

Gure erritik at ez dute era berdiña erabili: N'ri Y bat atzetik, edo besteek, berriz, N'ri G bat aurretik. Ez datoz Euskaltzaindiarekin ez ados eta ez atres. "Bakoi-tzak berea, Jainkolegea", dio esaera zaar batek: Frantziak, Kataluñak eta Euskaltzaindiak, bakoitzak berea. Nungo Batasuna ote da?

Aldaketa bat egitekotan, atze-atzeko, erromatarren garaiko lege zaarretara biurtzea zan, legezko. An daukagu Ñ' ren jatorria: bi N dira Ñ' ren jatorria. Badago erromatarren dokumentu bat, Aragoi inguruko gudariak buruzkoa. Izen zerrenda bat aitatzen da eta bertan dago gureraño etorri dan izen au, Ennecus Enneconis, Eñeko Eñekorena. Orixe zan Loiola'ko Iñigoren izena: Eñeco eta ortik atera zuten bere familian Iñigo, Eñeco baiño biuñago; bera bait zan etxeko amairu seme-alabeen artean, umerik txikiena.

Adituta neukan Ñ' ren aldaketa, ordenagailluak


N'rik ez zutelako, egin zala; aitzakia, beintzat, ori izan zan. Españarrak lortu dute N ordenagailluetan sartzea eta alde orretatik ez dago gaur arrazoirik.

N eta LI izkiak erdibitzeak zailtasunak eta naasteak besterik ez ditu sortu. Orain "pilak" edozertarako erabiltzen dira; pillatu ere egiten dira. Pilak pillatzekoan sortzen dira koskak eta eragozpenak, orixe idaztekoan...

Naasteak sortzen dira, askotan I eta N bakarka aoskatzen bait dituzte, N aoskatu bearran. Berdin berdin gertatzen da I eta L' rekin, "langile" ez dute "langille" aoskatzen, "langi-le" eta "langi-leria" baizik. Okerkeri oiek sortzen dira Ñ eta L' dun berbetan, I bat aurretik duenean. Orduan bear luteke bi I ipiñi N eta L' ren aurrean; baña, au ez du iñork egiten...

Izan ere, gauzak erreztu bearrean, zaildu, gaixtu eta naastu egin bait ditu "fija, limpia y da esplendor" egin bear duen "Real Academia del Euskera" erakunde zogarriak.

A.A.A.



## DEABRUAK OSTUTAKO URTEAK

Puxana tar Basilio adiskideak liburu irakurgarri bat idatzi dausku. Ez da lenengoa eta ez al da izango azkenengoa be.

Bartsolaria dogu Basilio, baiña liburu au geiena itz lauz idatzia da. Tarteka ainbat bertso edo olerki dauzala.

Gudaldiko joan-etorriak ditu gai liburu onek. Zenbat jakingarri dagozan or bazterretan agirian ipiñi bearrekoak, urteen isiltasunean lotan! Ondo egiña da ba Basilio'k egin dauana: Berak ikusitako gauzak beste batzuri agertu, erakutsi.

Erri asko gogoratzen dira liburu onetan: Elgeta, Legutiano, Ermua, Durango, Zeanuri, Euba, Artea, Zeberio, Laiñomendi, Bilbao, Enkarterria ta Santander-aldea. Zaragoza'ra ta Andaluzia'ra be eltzen jaku egazkada luzeetan. Eta dana gudaldiko ibillaldi samiñak gogoratzen.

Irakurri daigun gure Basilio' ren liburu au. Gauza asko gogoratu-ko dauskuz bere adiñeko edo gazteago garanoi eta bere euskera erreztu eta jatorrak erri-euskera sakontzen lagunduko dausku.

OLAZAR'tar Martin'ek

# BASELAIZAK ETA ERROMERIAK

## Erriaren oiñarrian

Udea urreratu jaku eta udeagaz batera gure erri ta auzoetako jaiak eta erromeriak. Giro orretan gogoratzen doguz gure ermita edo baseleizak eta euretan irudia dauken santuak.

Gure errigintzaren oiñarria Gernika'ko edo beste toki batzutako batzarrak izan dirala esan da, eta, nire ustez, beste gauza bat argitu bear dogu: Zelako artu-emonak izan dan erriaren edo eleiz-atearen eta auzoen artean, eleizatearen eta kofradien artean.

Kofradiak osotzen ebezan etxeko jaunak edo "fogeradunak" eta eurak aukeratzen ebezan bear ebezan serbitzailleak, esaterako maiordomuak eta basozaiñak. Auzo-laguntza ori txandaka egiten eben, gitxienez maiordomutza. Jakiña da ez zirala auzoko guztiak fogeradun, etxedunak baiño ez, etxea alogorean eukenak euren eskubideak eukezan, sugarria batzeko, frutuak ekarteko, abereak abarotara eroateko ta abar, baiña ez ziran leiñargi, ez ziran "hijo-de-algo" edo "hidalgo" eta ez euken autarkirik, ez erri eskubiderik.

Kofradiak Eleizateakaz eukezan artu-emonak ez dauz iñok be argitu, baiña ba-dago or billaketa egin bearra. Agiriak eta liburuak be, gitxienez XVI gizaldia ezker, ugari dagoz.

## Jabetza

Norenak ziran, eta dira, baseleizea ta bere esku egozan baso, etxe ta soloak? Nire ustez eta zalantza barik, fogeradunenak, kofradiarenak. Eta ondasun orreik iñoz saldu ba'ziran erosleenak. Jakiña da, sarritan eta Erregearen aginduz ondasun orreik saldu ziranean, eurak barriro eskuratu ebezala. Birritan dira ba eurenak.

Baiña emen beste galdera bat egin bear da: Zertarako? Ez dago orretan ba zalantzarik, nire ustez, baseleizea zaintzeko eta bertan emon bear dan jaungurtza edo kultoa emoteko. Oraindiño be, geienetan maiordomu bein betiko geratu danak olako eginbea-

rrak izaten dauz: Jai egunean goisaltzeko janariak eskiñi, baseleizako gauzak zaindu, kanpaiak jo, eta abar.

## Gaur Giroa

Gaur kofradiak erdi-aiztuta dagoz, toki batzutan izena be galdu dabe, beste batzutan indartsuago dagoz.

Batzutan ermitea bera be galdu egin da, esaterako Mungia-ko San Anton-en. Beste batzutan galtzeko arriskuan dago, eta ez goaz izenik esaten. Beste batzutan arazoa bideratu da, esaterako Mungia'ko Magdalena'n. Eta beste batzutan orretarako bidean doaz. Auzoko guztien egibearra da arazo larri au bideratzea eta argitzea eta ez basamortuko oillararen antzera burua egapean sartu eta eriotzeari itxaron.

## Baseleizea bera zaindu

Baiña sarritan ez da gauza erreza izaten arazoa bideratzea eta ori jazoten danean, danaren gaiñetik, baseleizea bera zaindu bear da. Kofradiarena dala? Konpontzeko eginbearra daukela? Baiña fogeradunak zor bat dauke gitxienez argi dagoana: Baseleiza aretan orain-arte egin diran eleizkizunak egiten iztea. Ori ukaku-eziñeko zorra "servidumbe" da, ori eta oiturea izan dan geiago be bai, esaterako dantzarako zelaia iztea ta abar. Eta ori orrelan izanik, fogeradunak batera dirala, auzo guztiak baseleiza konpontzea be onartzeko gauzea. Gaiñera orretarako laguntzeko gertu egoten dira, oraingoz, Aldundia ta Udal-Batza; eta Eleizea, jakiña, al dauan neurrian.

Esku-lana auzokide guztiak egitea, orretarako laguntza aundia izaten da.

Arbasoengandik artu doguna, ordorengoai itzi dagiegun, al ba'da obetuta.

OLAZAR'tar Martin'ek

# PEDRO MAÑARIKUA<sup>N</sup>

## Franzizkotarra

### Durango

Ibar orlegi, yori batean  
Ibaizabal ta Durango;  
Kondaira sustraitik, eten barik,  
entzute ona izango.  
Zure seme leial, jatorrak  
ekarri onak emango:  
zure Gurutze santu zainpean  
zer ez izan ta esango?

### Sorterrien alde

"Errien alde jokaturtea, jokabiderik onena", idatzi neban lenagoko idazlan baten. Egia esateko, gizarteak ez dau jokabide ori ondo bete, batez be, sorterrien izabide, izpide eta eskubideai buruz.

Sorterri oneen biotzetara urreratu bearrean, euren jatorrizko izakerea zintzoro eutsi-arazo, eta euren izkuntza onartu bearrean, buru belarri jokatu dogu geurea eurei sartzera, gure izkuntza, gure oiturak, etabar. Eta txarrena, "indartsu danak, itxura onez, aulagoa zapaltzea". Euskal Erriak badau, gai ontan, zer esanik.

Badira, zorionez, Eusko semeak eta ez gitxi gero, sorterrien alde ziñez ta zintzoki jokatu dabenak.

Fray Juan de Zumarraga, Durango-ko seme argia, Mexiko laterrian lenengo gotzaiña izanik, jaioterri ontako gazteentzat Santa Cruz ikastetxea egin eban, euren izkuntza ta jakinbidea zainduta biztuteko.

Fray Pedro Mañarikua, Peru'ko mixio bazterretan, egiñalak egiten ikusiko dogu emengo izkuntza ikasi eta euren artean bizi-eragiteko.

Nor dogu, ba, Pedro Mañarikua? Durango da bere jaioterria. (1876) Bere lenengo ikasteak Jesus'en Lagundiko ikastetxean egin zituan. Geroago Franzizkotarren bizibidea arturik apaiztu egin zan.

Buruaren argitasunari biotzaren garra jartzen badautzazu bereala sortuko dira gizandiak. Izan be giza-seme guztiok aurrerapidea artzeko, barruko zer bat, indar bero bat, mistika bizi bat bear dogu, gure bizitzari bultzada eragingorra emoteko. Oso ongaria jaku barneko indar ori.

Nundik eta zelan artu eban aita Mañarikuak Mixio-

tera joateko grazia ta eragiña? Peru'ko Franzizkotar batengandik. Onexek goritu eban bere biotza. Eta ogeta sei urtedun zalarik Peru'ra etorri zan.

### Bat egiñ

Aita Mañarikua'ren alde esan daikegun gorapenik txalogarriena auxe da: Emengo bizilagun guztiekin, euren izkuntza ta bizimoduakin BAT EGITEA.

Gaur egun mundu zabalera guztian izen ta entzute garratza dauan AYACUCHO errian auzotu zan eta emen bizi berrogeta bost urte buruan. Ayacuchotarra egin esan gogoz eta biotzez. Lurralde onetan basorik baso, bazterretatik bazterretara ibilliko da, bertan bizi diran lagunai Kristo gure Jaunaren grazia ta maitasuna oparo zabaltzen.

Aita Mañarikua ez da berekoia eta geldi egoteko mutilla. Beti dago prest guztiai laguntasuna eta eliz oparia eskeintzeko. Kezka bizi bat darabil bere baitan: euren izkuntza ez jakitea. Ori ikusirik gogo beroz ekingo dautso Quechua ikasteari. Eta bai ikasi be ondo baño obeto. Aurrerantzean Kristau ikasbidea eta itzaldiak Quechua izkuntzan egingo ditu. Modu ontan eta Jaunagandik datorkion ontasun eta beratasunagaz erriaren ederra irabaziko dau.

Erriari otoi bidean laguntzeko Quechua izkuntzan eliz-liburua argitaratu eban (1945).

Arrigarrizkoa da bere lanerako eta ikasterako garra. Ara emen agerbide batzuk: Ayacucho uriko <sup>g</sup>ertakizun zaarrak eta goragarriak ikasirik, kondaira gaietan, mai-xu ospetsua izan zan. Jundako gizaldian Ayacucho eta eskualdean argitaratu ziran egunkari, aldizkari eta albistarien bilduma egiñik, erri jakintzari esan ezin alako mesedea egin eutson.

Kondaira gaietan berarizko maixutasuna izan eban, eta kultura lagunarte batzuetan bazkide argia izan. Aldizkarietan idaz-lan burutsuak argitu ez-ezik, erriko gertaldi aundietan itzaldi sakonak emon be bai. Bost dira berak kondairari buruz idatziriko liburuak.

Aita Mañarikua Ayacuchon il zan 82 urtedun zalarik (1958).

Durango'ko seme argiari omenik zintzoena.

Uriguen'tar Zenon

## PALL®LITIK®...

### PALEOLITIKO MARRAZKIAK CADIZ'EN (DEIA-1994-IV-18)

Ala dio beintzat aldizkari onek: Cadiz' ko Mendartean, La Manga de Villaluenga deritzan parajeon, topa dituztela Paleolitiko Garaiko marrazkiak.

— Neuk ere irakurri dot eta an omen dabilta 60 aztertzaille.

— Paleolitiko-Garaikoak dira Bizkai'ko Santimamiñe kobako marrazkiak; Gipuzkoa' n Ekainekoak eta Kantabrian Altamirakoak. Asturias'en ere badaude; Pirinee Mendartearen zear ere bai. Eta, andik Ifar-alde-ra, Dordoña'ko lurraldean sekulako kobak daude marrazkiz beteak. Andik asi eta, Pireneen-zear, Asturias' eraiñoko kobeek osatzen dute Franko-Kantauri deritzan Kultura.

— Orduan, gu euskaldunok, Kultura orren ardatzean gaude.

— Ala da. Eta, orain berriz, Kultura onengandik ain urrun dagoen Cadiz'en, garai aretako marrazkiak aurkitzen, benetan oso da arrigarri.

— Españi'ko ekialdeak ere baditu bere marrazkiak.

— Bai baña, ez dira garai artakoak, millaka urte berandukoak baizik. Orregaitik, eta Afrika'tik etorri zirako, marrazteko era oso desberdiña erabili zutelako, ez dira biak berdin. Gure Kulturako margo, marrazki eta xixilikatoek, animaliak agertzen dizkigute beuren erara, ikusten diran modura, eta ez da gizakirik agertzen mamorroz jantzita eta ez ba'da.

— Majiaren arazoak dira oiek.

— Arrazoi dezu, magoek irudiaren bitartez menperatzen dituzte gauzak, orregaitik ez da gizakien irudirik gure artean; baña, Capsiense deritzen ekaineko marrazki oiek, eizea nola egiten dan agertzen digute, gizakiak tartean dirala, eta berezko itxurarik gabe zearo argalduta: marrazki uts bat bezela.

— Ala ba'da, oiek animistak ziran.

— Cadiz'en arkitutako marrazkiek, eurok dioten garaikoak ba'dira, orduan, Franko-Culturaren antzerakoak bear dute izan: baña, tokiari begiratuta, Capsiense kulturakoak bear dute izan eta aren antzekoak. Emengoen antzekoak izateak korapillo au sortuko luke: Nola pasa ziran emendik ara?

### "ZEREN" ITZA ETA IRIBAR

— Futboleko partiduak, jaiero, ETB'ek erakusten ditun bakoitzeko, or ari da Iribar berbetan, jokalariek nola jokutzen duten agertzen. Eta, ez ditu iru esan-aldi beteko ZEREN ori esan gabe. Esate baterako, onela esango du: "Ez du ondo jokatu ZEREN ez dio lagunari begiratu".

Baña, gizona, ori ez da euskera jatorra.

— ZEREN ez da euskera jatorra, latiñetiko CUJUS baizik. Onek latiñez, zergatia adierazten digu eta apai-zek, baita Axular'ek ere, erabiltzen zuten aurreko eun-kietan. Kutsadura ori andik sortu zan.

— Aizu, itz ori Euskaltzaindiak onartuta dauka.

— Gaizki onartuta, ordea, naiz-eta Lendakariak berberak erabili. Euskaldun jator batek ez ditu ori sekulan erabilliko. "Zeren ez dion lagunari begiratu" esateko, or dago "Lagunari ez dioLAKO begiratu" edo bestela "Lagunari ez dio begiratu-TA"; baita au ere: "Ez BAIT dio lagunari begiratu"...

— Orrela ba'da, nolatan onartu dute?

— Euskaltzaindiko izatera eldu diran zenbaitzuk, Axular'en GERO erabili oi zuten euskera ikasteko, eta egilleari begirunez edo, aren okerra ere onartu dute.

### KATALAN IZKUNTZARI ERASOAK

#### "PUJOL ADVIERTE AL PP QUE GUARDARA "MEMORIA HISTORICA" DE SUS ATAQUES AL CATALAN" (DEIA - 25-IV-1994)

— Eta, orrek euskeraz zer esan nai du?


— Erriak ez dituela aztuko PP'ek Katalan-izkerari egin dizkion erasoak.

— Baña, erriak ez du orain gogoratzen aurrekoen gertaerarik. Lenago bai, baserrietan bizi giñanian, baserria zan kulturaren giltza eta eutsigarri. Ildakoak eta biziak, guztiak, tellatupe batean bizi ziran eta aitak erakusten zion semeari berak bere aitagandik ikasitako guztia, baña orain, txotxo, ez daukagu ez etxerik, ez aurreko familirik, irrati eta tebistak mundo guztiko berriekin betetzen gaituzte eguneroko une guztietan...

— Bai, ori bai, baña beste eratako gora-berak gogoratzen ditu erriak; or daukazu Gernika'ren suteak leku-ko.

## ARGI-IZPIAK

- Ori, berori gogoratzeko ere, norbaitek argira ekarri izan du eta orretan saiatu. Begira lengo eguneko "Rompecabezotas" ekin aldian, neska gastetxo batek laugarren aldian, iru aurrekoak irabazita, ebillen. Eta galdera au egin zioten: Noiz amaitu zan 1936'garrengo gerratea. "Paso" esan zuan, eratzunik gabe gelditu zalako. Ondoren onela galdetu zioten: "Ostegun Santuz zer ospatzen du Elizak? "Paso" izan zan erantzuna. Orrelakoak ez ba'ditugu gogoratzen, nola gogoratu PP'ren erasoaldiak...?



### RUANDA'KO MIXIOLARIAK (DEIA 25-IV-1994)

Ruanda eta Burundi'ko Mixiolariei eman diete Principe de Asturias deritzan saria. Mixiolari guztiei batera eman diete Saria, munduaren aurrean eman duten jatorrasun eta lagun-urkoenganako maitasunagatik.

—Diez Espelosin andereari eman diote sari ori.

—Bai, baña, talde guztien orde z bera artu dutelako, berak eman bait zigun Komunika bideetatik ango sarraskien berri. Gorriak ikusi dituzte.

— Bost apaiz gipuzkoar ere badaude an aspaldiko 20 urte auetan.

—Ez zuten etorri nai: baña, azkenik, an arrisku bizian zeudelako, alde egin bear izan dute. Etorri diranak, ordea, asmo bakar batekin datoz eta auxe da: Bertara len-bai-len itzultzeko asmoakin.

### "RUBIO"REN ARAZOA

"La CDU cree que el "caso Rubio" habria provocado una revolucion en Alemania". (DEIA 26-IV-1994)

— Esaidazu euskeraz, mesedez. Zer da CDU ori?

—CDU da Union Democrata Cristiana eta talde onek zera esan digu, au Alemania'n gertatu izan ba'lituz, iraultza baten antzeko ondorioak ekarriko zitula.

—Baña, emen ez du ondorioarik ezer ekarri?

—Ez, aspaldian esan zidan, zigortuta ibilli zan Fanco'ren denborako apaiz zaar batek: Mutil, mutil, auxe gogoan beti izan, mundu onetako Legeak eltxoak arrapatzen dizkik; baño, mando-eulirik sekulan be ez.

—Bai, ala aitu det eta orain ez da esaten "Dinero Negro", "Dinero Rubio" baizik.

Bartolo Arropain'go

## EUSKERAZAINTZA (Euskerearen Erri-Akademia)

Orrillaren 28n. egunean, Solozabal eta Solozabal'dar Paulin Euskerazain jaunak Akademi onetara sartzeko dan itzaldia egingo dau, arauak eskatzen daben lez.

Mungia'ko Torrebillela Kultur-Etxean.

Goizeko amaiketean.

Gaia: Euskerea izkuntza jatorra, jakintsua eta ederra.

Akademi-oituraj jarraituz,

Aurkezpena Legarreta tar Asier gazteak.

Erantzuna: Olazar'tar Martin Euskerazain-buruak.

Jarraian, euskerazaiñak lan-bazkaria izango dabe Gatika'ko Goitxi jatetxean.

Itzaldira sartzeko guztientzat dagoz atepak zabalik.

---

## GAUR BAI, AMA

---

### GAUR BAI, AMA

Umetandik egin neutzun otoia  
maitasuna mosu gozoz agerturik,  
egunekin aztu neban zure maitetasuna  
zoritzarrez ondobidea galdurik. (Bis)

Gaur bai, Ama, gogoan dodala  
zuri zññez otoian esana,  
ta biziro nigan gogartu:  
Ama ona beti dago gure zaiñ. (Bis)

Begi onez artu nozu etxean  
biotz-miñez noiz etorri bizi zññan  
mai gañean bazka bero, maitasun agiria,  
eta zure laztan samur, maitea. (Bis)

Gaur bai, Ama...

Seme bat galduta egon arren  
Ama zaiñ da noiz etorriko etxera,  
gizonentzat Jainkoaren miraririk onena  
baida amaren maitasun biotzbera. (Bis)

Gaur bai, Ama.

### HOY HE VUELTO

Cuántas veces siendo niño te rec  
con mis besos te decía que te amaba  
poco a poco con el tiempo olvidandome de ti  
por caminos que se alejan me perdi. (Bis)

Hoy he vuelto Madre a recordar  
cuántas cosas dije ante tu altar,  
y al rezarte puedo comprender:  
que una Madre no se cansa de esperar. (Bis)

Al regreso me encendías una luz  
sonriendo desde lejos me esperabas,  
en la mesa la comida aun caliente y el mantel  
y tu abrazo en mi alegría de volver. (Bis)

Hoy he vuelto...

Aunque el hijo se alejara del hogar  
una madre siempre espera su regreso,  
que el regalo más hermoso que a los hombres da el Señor  
es su madre y el milagro de su amor. (Bis)

Hoy he vuelto.

Aita Zenon Uriguen'ek  
euskeratua

Oso atsegingarri yat HOY HE VUELTO ABESTIA, toki guztietan abestuten da. Bizkaieratu egin dot. Laster dator Amaren, eguna, eta euskeraz abestu gura badozu or daukazu.

### IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratze-ko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gañean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

## B IZKAITARRAI BIZKAIERAZ



**Eusko Jaurlaritzaren  
Laguntzaz.**

Kultura Saila

# EUSKAL IDAZLE BAT ZORIONDUNEN ARTEAN

Oraintsu irakurri dogun barri batek poztu egin gaitu euskal kulturaren arduetan sartuta gabiltzanak.

Au da. Antonio Amundarain'en zoriondun autortza, santutasun bideko auzia, aurreratua dala.

Ain zuzen berrogei urte bete dira il zanetik.

Elduaie'n go Sales baserrian jaio zan Antonio Amundarain eta Garmendia 1885 urtean eta Madrid'en il 1954-n.

Euskal idazle, antzerkigille eta musikalari be izan zan.

"Andra Mari bitartez Jesus'ekiko Alkartea" sortu eban 1925 urteko Kandelari egunean, baiña bere alkarte orren zuzendaritzak eta aitatasunak ez eutsan kendu adorerik bere euskal zaletasunari eusteko.

Zumaraga'n eta Donosti'n igaro zitun egunik geienak, bere abade zeregiñetan.

Gizon apala, irribarretsua, iñoren mesedean bere indarrak erabiltzen oitua. Esaten dana, ikusiaz batera ontasuna zabaldu eta iragarten ekiana.

Eta on-bidez, euskal antzertia be txairo erabilten jakin ebana.

1913 urtean santu eutsen lenengo lana: "Bertan goxo", umorez betea. Urte orretan Tolosa'n Euskal jaiak ospatu ziran eta oitura zanez ainbat eratako euskal leiaketak iragarri ziran.

Jai orreitako leiaketetara lan ugari agertu ziran, eta sarituak oneitakuak izan:

Izan J. Aierbe'ri, E. Urroz'ek erderaz idatzitako Tolosa'ko Historiaren Bildurra euskeratzeagaitik.

Beste sari bat I. Lopez Mendizabal'eri, "Euskerazko amalaudunak eta amalaukuak" zelakoak egin izan diran

eta egin bear litzakezan, gaiean. Amalaukoak, erederaz sonetoak deitzen dirala gogoratu.

Sari bi egon ziran baita beste gaietan. Eta antzerki saillean Amundarain'en "Bertan goxo" orrek lortu eban saria eta beste bat Jose Garzia Goldaraz'en "Zintzotasuna" lanak. Iru ekitaldikoak ziran lan oneik.

Geroago Donosti'ko Udaleko Euskal Iztundeak'ek eratu eban 1920 urtean sariketa bat eta an sari irabazle izan zan Amundarain'en "Egin zak on" ekitaldi bikoa. Emakume utsak sartzen dira lan onetan. Lan au Donosti'n antzeztu zan 1921 urteko Aratuzte jaietan.

Esan bear da lenengo saria utsik geratu zala baiña beste bi emon zirala eta Antonio Labaien'ek eta Amundarain'ek lortu zituela biok.

1921 urtean Donosti'n bertan Zirt zart" bakarrizketa saritu eutsen.

Onen ondoren "Uste diñat" izenekoa idatzi eban. Ainbat tokitan eta ainbat aldiz gerra aurrean antzeztutako lana, bai Gipuzkoa'n eta bai Bizkaia'n oso atsegin eta barragarria zalako.

Onez gain 1930 urtean Euskal Iztundeak zabaldutako leiaketan, bere "Lore bat loietan" lana, iru ekintzetakoa izan zan irabazle, eta beragaz batean Labaien'en beste bat. Sei lan agertu ziran.

Amundarain'en euskera gipuzkera errikoia izan zan, erraza, atsegiña eta gaur beti gertaten ez dana, euskeraz asmatu eta pentsatua.

Beraz euskal idazleak zoriontsu itxiten gaitu santuen artean euskal idazle bat euki geinkela jakiteak.

A. ZUBIKARAI

## BARREA TA ZENTZUNA

Bere buruai aundi, iñorenai txiki deritxon zenbait kritikari ba da mundu zabalean...

Euskeraren arloan jigante gutxi ditugu; baiña, etzaigu aleren bat palta. Ta Euskeraren berri zakonetik jakin nai duten orok, jigante oien bizkarrera igo bearko.

Nai ta nai ez.

Aitaren bizkar gaiñean eserita dagoen umeak:

—Aita, zu atzeratua zaude. Zuk baiño ar bat lur geiago ikusten dut nik. Zu baiño geiago naiz...

—Bai, bai... Geiagoko ar ori nere bizkarretik dakuzula

ez al zera konturatzen? Ni nire azpitik ez ba'nitz, ez ukek ik ezta zatorraren zulorik ere ikusiko...

Mendi gaillurretik begira, ez degu gure oiñazpian zapaltzen degun mendirik ikusi nai.

Orrelako itsumenik konpreni lezake gizonak? Zerk lausotzen digu begi-bista? Zudur aurretik barbantzu-purea baiño itxiagoko laiño itxia daukagu.

Gorrena? Entzun nai ez duena.

Itsuen? Ikusi nai ez duena.

— "Zure begia garbi ba'dago, zure gorputz guzia argi egongo da... Begi zikiñak gorputz guzia zikintzen du..."



---

**GORBEIA'KO KURUTZEARI**

---

1

Aita Santuak eskatu eta  
garaia etorri zanean,  
kurutz santuak jarriak ziran  
mendirik altuenean.  
Gorbeie dan lez mendi eder ta  
altua, zorionean,  
bertan jarri zan Kurutz Santua  
Euzkadi'ren izenean.

2

Gaur Gorbeian da kurutz ederra,  
beso zabalik dizdira.  
Guztiontzako argi egiten  
zeruetara begira.  
Mendizaleok goazen alai ta  
gogotsu Gorbei mendira,  
bada bertatik ikusten diran  
danak marabillak dira.

3

Goitik datorren argirik barik  
ezer ez dan lez ikusten,  
an dago beti beso-zabalik  
bidera argi egiten.  
Zuzenbide dan argi ortatik  
ez ba' gara aldunduten,  
itxaroten dan zorion ori  
aurkituko da nonbaiten.

4

Gure Kurutz an dago beti  
eguzki nai edur egin,  
guztiontzako maitasunakin  
testigu dala aldamin;  
mendigoizale edo artzaiñik  
bizi dan arte Euzkadi'n  
saiatuko da zure izena  
aintzatua izan dedin.

5

Kurutz orrek iragarten dau  
bide zuzeneitakoa;  
zuzenbidean onena edo  
beintzat onenetaikoa;  
orrez gaiñera esan dagigun

ori ez ba'da naikoa,  
arlo orretan bazkidea da  
Alguztidun Jaungoikoa.

6

Mendigoizale ta artzaiñak  
mendien alde azaldu  
eta mendiko barri ederra  
mundu guztira zabaldu;  
eta laiñoak estaldu arren,  
itxaropenik ez galdu;  
bada Kurutz an dago beti  
naita laiñoak estaldu.

7

Eskubidea eta indarra  
ez dagozan lez alkarrik,  
Kurutz Santua! Zu jaso ziñan  
justizia jarri nairik.  
Kurutz orretan isuri zana  
izan ez daiten alperrik,  
ibildea argitu eta  
ez gaizuz itzi bakarrik.

8

Beso-zabalik agertzen dauku  
guganako maitasuna.  
Gure aldetik zer gitxiago  
beintzat esker erantzuna.  
Argi urria badaukagu be,  
Biztu daigun daukaguna.  
Eta maitatu egin dagigun  
beintzat geu maitatu gaituna.

9

Gorbei-ganeko Kurutz Santua,  
argi ta maitagarria!  
Zintzo diranen itxaropena,  
goizaleen iturria,  
zure azpian asetzen dogu  
goi-maitasun-egarria.  
Zaindu artzain ta mendigoizale  
ta gure Euskalerra.

Puxana 'tar Basilio 'k

---

# SANTIAGO APOSTOLUAREN GOTZAIN-ELEIZA SANTUA BILBAO'n

---

## BILBAO

Santiago-Bidearen babespean jaio zan Bilbao, zubi baten alde bietan eta torre batek zainduta, bidelarien gaiso-etxe bat eta Santiago zaindari dauan eleiza bat.

Zubia (geroago artu eban San Anton'go zubia ize-na) izan zan itxas-ertzeko bidelariak Gaztela'ko bideetara emoten eben lenengo oinkadea. Eta zubia zaintzeko egoan torrea geroago San Anton'go eleiza biurtu zan.

Zubiaren ondoan, ibaiaren ezker-aldean, errementari-talde txiki baten lekua egoan eta kai txiki bat meatzak ontziratzeko. Urrintxuago Billirita, Ermudatza ta olargan meaztegiak eta artadi eder bat burdin-olai ikatza emoteko.

Ibaiaren eskuma-aldean arrantzaleen erria, ibairantza izan ezik beste danean, arresi batek inguratuta.

1300n. urtean idatzi zan uria sortzeko agiria: Bilbao'n, Begoña-aldean, sortzen dot Bilbao'ko kaia deritxoen uri barria".

Gizaldi beratan, gora ta gora joian Santiago'ren eleizea, gotiku-tankerako etxe eder-ederra.

Iru gizaldi geroago, 1643n. urteko abenduaren 19'an, Santiago Bilbao'ren zaindari lez artu eben.

Urte ori baiño askoz lenago itxas-Zaleen anaidia (kofradia), gero Itxastarren Konsul-Etxea izango zana, Santiago'ren babespean egoan eta eundak dira izen ori eroan daben Bilbao'ko itxas-ontziak.

## SANTIAGO'REN ELEIZEA

Santiago'ren parroki-eleizea 1950n. urtean biurtu zan Gotzain-Eleiza eta 1300n. urteko foruan aitatur dago.

1379n. urtean eleizea "zabaltzeko" lanak asko aurreratuta egozan. 1404n. urtan asi ziran korua egiteko lanak. Etxe osoaren tankerak XIV gizaldiko egite-asmoa gogoratzen dau eta XV gizaldiaren lenengo erdian egin zan oiñarriko eraikuntza ez da aitzu.

Greziatarren kurutzea itxura lez artuta, iru egonleku ezbardin dauzala egiña da. Albo bietakoak luzatu egiten dira eta altare-buruaren atzean "girola" osotzen dabe.

Gogoangarriak dira leio ederrak, altara-buruko arkuak eta kurutze-ingurua dan triforio edo arkutegi irukoitza.

Eleizearen azpian "rencas de fuesas" edo illobi-illarak dagoz. guztiz, 204 dira. 1379n. urtean zenbatu ziran lenengoz.

Beaugrant'eko Guiot'ek asi ebazan 1535n. urtean altara-buru nagusi arrigarria egiteko lanak eta XVIII gizaldian jatsi egin bear izan zan. Altara-buru orretan izan ziran irudi asko Zar-gaijen Erakustetxean edo Arkeoloji-Museoan dagoz.

## IBILTEGIA (KLAUSTROA)

XVI gizaldiaren asieran lenago iparraldean egoan illerri zarraren gaiñean egiña da.

Gotiku "flamigero" edo su-bizikoaren tankerakoa da eta lau alde ondo arautuak daukaz, alde bakoitzak amabost metro luze eta lau zabal ditu eta gaiñean kurutze itxura arrunta.

## AINGERU-ATEA

Korreokalera jotzen dauan ate eder-ederra da (len kale au santiago-kalea zan) eta izen bi ditu: Ibiltarien Atea eta Aingeru-Atea (San Migel'en irudia daukako). XVI gizaldiaren asierakoa da.

## ATE NAGUSIA (Antxiñako atea)

Gaur aterpearen barruan dago. XIV gizaldikoa da. Auxe da ate-ederrik zarrena eta baliotsuena Gotzain-Eleiza onetan. Turuta-itxurakoa da eta dauan lenengo arku-bira irudiz apainduta dauka. Irudi orreikigarleenak izan daitezke. Beste arku-bira biak atera

begira idegita dagoz arku txiki erpindunak daukeze-la.

Erpin-erpiñean Uriaren ikurdia (eskudoa) dago (arri margotuz egiña) eta Kontzejuaren babesa iragarri nai dau. 1572n. urrean egiña da Lenagoko ikurdia (eskudoa) Arkeoloji-Museoan, Zar-gaiien Erakustetxean, dago.

## **ELEIZPEA**

Egoaldeko illerriaren gaiñean egin zan, XVI gizaldian, eleizpe eder au trapezio-itxurakoa eta Tsokani-Tankerako age sendoak eusten dautsoela, arkuak punto-erdikoak edo luzatuak dira, goia kuru-tze-itxurakoa.

## **TORREA TA ATE-EDER NAGUSIA (gaurkoa)**

XIX gizaldiaren azkenean Atxukarro'tar Seberin'ek egiña da.

## **BASILIKA-IBILTEGI-SAKRISTI-KAPILLEN EGITASMOA**

1.- Sarrera nagusia, plazatxutik. XIX gizaldiaren azkenekoa da.

2.- Sakristia: Latin-giroko Eleizearen lau Irakasleen irudiak, Guiot de Beaugrant'ek egiñak: Gregorio Aundia Deunarena, Ambrosio Deunarena, Agustín Deunarena eta Jeronimo Deunarena.

3.- Ibiltegi (Klaustro)'ra sarrera, XVI gizaldiaren asierakoa.

4.- Pilar'eko Ama'ren kapillea.

Mirarietako Amaren irudia.

XVIII gizaldian burdiñezko age batera lotuta geratu zan eta belauniko dagoan Santiago ibiltariaren irudia gaiñeratu jakon.

Altara-buruaren oiñean dagoan burdiñezko kuxtan Fruktuoso Deunaren, Bonifazio Deunaren eta beste martiri batzuren gorpuzkin gogoangarriak dagoz.

5.- Andra Maria'ren Biotzaren kapillea.

Arizmendi'tar Franzisko'k egindako zurezko irudi ederra da (XVIII gizaldikoa) eta gaur daukan ize-na daukalako biotza ipiñi jakon. Altara-burua XVIII gizaldikoa, Andra Maria'ren bizitzako irudiak daukaz olean aterata.

6.- San Anton'en kapillea.

Beaugrant'ena dala diñoen eta España-Flamenko'tarra dan zurean eskuz egindako irudia Gotikutankerako illobia, errezel antzera arkuak dauzala, eta etxunda dagozen irudi bi. Idazkia 1504n. urtekoa da eta illobia Arbieto'ko Juan Fernandez eta onen emaztea zan Bitoria'ko Maria Santxez'ena dala diño.

7.- Begoña'ko Ama'ren kapillea.

Len Magdalena'ren kapillea zan.

Altara-burua Salomon-tankerakoa da (1700?). Gaiñean Magdalena'ren irudia.

Altara-buruaren erdian 1730'ean Begoña'ko Ama'ren eunezko irudia egoan lekuan (au eleizearen barruan dago) orain Begoña'ko Andra Maria'ren irudia dago, 1956n. urtean J. Luis Teresa irudigilleak egiña.

Gotiku-tankerako illobia, arkuzko errelez egiña, etxunda dagozan irudi bi dauzala. Oneik Arana'ko Marin Santxez eta Basurto'ko Mari onen emaztearenak dira (1538-1539).

8.- Luzia Deunaren kapillea.

Altara burua XVII gizaldikoa da eta ol margotu bi daukaz: Jose Deuna Umeagaz, Juan Bateatzaille deuna.

Andra Martiri Deunaren Irudia, XVI gizaldikoa ta manierismo tankerakoa.

Au Jusue sendiarena izan zan.

Gotiku-tankerako illobia. Gorpu-lekua dauka eta gaiñera agertzen dan irudia gudariz jantzitako gazte batena da.

Au, gitxi gorabera, 1500n. urtekoa da.

9.- Alkala'ko Diego Deunaren kapillea.

Fuika sendiarena zan.

Salornon-tankerako altara-buruan zaindariaren irudi margoz betea. Eta gaiñean Teresa Deunaren irudia. Dana XVIII gizaldikoa.

10.- Jesus'en Biotzaren kapillea.

Len Txomin Deunarena zan. Zumeltzu sendiarena izana.

Oraintsukoak diran Jesus'en Biotzaren eta Lourdes'ko Ama'ren irudiak.

11.- Ama Errukitsuaren kapillea.

Udal-Batzarena da. Gotiku-barriaren tankerako altara-burua eta bertan zaindaria, irudi eskuz egiña eta XVII gizaldiaren erdi-ingurukoa Irudi au Bizkai'ko dan Aboitz'tar Antonio irudigilleak 1642n. urtean egiña da.

Lenago, Santo Kristo'ren kapillea esaten jakon eta Ugarte'ko Hurtun jaunarena zan.

## EDER-LANAK

12.- Sokorru'ko Ama'ren kapillea.

Altara-burua, XVIII gizaldiaren aiserakoa. Sokorru'ko Ama'ren irudia. Oneri geroago Errosario'ko Amarena esaten jako.

Goiko aldean Guzman'eko Txomin Deunaren eun margotua. Illobia arkudun errezalagaz eta bertan 1736'an kapilla au egitea ordaindu eben Gortazar eta Arandia sendien izkillu-ikurdiak.

13.- Erremedio'ko Ama'ren edo Nonato Erramun Deunaren Kapillea.

Gorputzkin-kutxa dan altara-burua, Badajoz'ko Kanonikuen buru izan zan O11oki'tar Martin'ek emona. Albo bietan eta erdian gorpuzkin asko daukaz.

XVII gizaldikoa dan Andra Maria'ren zurezko irudi margoduna. Antza daukanez Alloitz'tar Antonio'k egiña. Erroma'ko Populo'n dagoanaren antzera egiña da.

Gaiñean Nonato Erramun Santuaren irudia.

Pankrazio Deunaren, Ursula Deunaren, Agate Deunaren, Blas Deunaren, Luzia ta Kosme Deunen eta Erroke Deunaren gorpuzkiñak, Kurutze Santuaren zatia eta Lapur onaren kurutzearena.

14.- Marina Deunaren kapillea edo Illerrira atea.

Gaur eleizpera sartzeko bidea da. Illobi utsa. Jabe izan ziran Lezea'ko Biktoriatarren izkilluak daukaz. 1400n. urtekoa. Gotiku-Flamenku-tankerakoa dan brontzezko "lauda", Arkeoloji-Museo edo Zargaien Erakustetxean zaintzen dabe.

15.- Karmen'go Ama'ren kapillea.

Altara-burua Gotiku-Barri tankerakoa da eta margodun zurezko irudia dauka. Lenago Jazokunde'ko Ama'ren izenagaz zan ezaguna.

Gotiku-tankerako illobi utsa, Andra Maria'ren zurezko irudia buru dala. Itxasgizon ospetsuak izan ziran Bertendona'tarren sendi ospetsuarena izan zan.

16.- "Ecce Homo"ren kapillea edo "Buru-Irudia"ren kapillea.

Zaindariaren irudia, zurezkoa ta margoduna, España-Flamenku Tankerakoa.

Erri-giroan dagoan gotiku-antzeko kurutzeratua.

Gotiku-tankerako illobia, estalki dan arku erpinduna.

17.- Jose Deunaren kapillea.

Altara-burua Maria'ren Biotzaren Kapillan dagoanaren antzekoa. Kanpoko eleizpean dagoan ate gotiku ederra illuntzen dau.

Jose Deunaren zurezko irudi margotsua, 1899n. urtean egiña Basterra'ren eta Larrea'tar Bixente'ren lan ederra da.

18.- Serafin Deunaren kapillea.

Dehesa'ko Francisko Deunaren zurezko irudi margotuu ederra, 1687n. urtekoa. Altara-burua Klasiku-Barri girokoa.

Kapilla au Santiago'ren Zalduna izan zan Ogaz'tar Joakin'ena izan zan.

19.- Bateo-Kapillea.

Bateo-ontzia 1746,koa ta arrigorritzkoa da.

Kristo'ren beteoa agertzen dauan igeltzozko irudi-taldea.

20.- Maitasundun Kristo'ren Kapillea.

Kurutzeko Kristo'ren irudi eskuz-egin eder-ederra. Manierismo-aldikoa da eta XVI gizaldian egin eban Beaugrant'eko Guiot'ek.

21.- Aurreko aldean orma-barrenean diran illobiak.

+ Fuika'ko Diego Perez'ena. Bilbao Urian Korredore iraunkorra izan zan. Irudidun arria.

Beaugrant'ko Guiot'en Irudi-olatik ekarria da. 1540n. urtean.

+ JHS M.<sup>a</sup> Martin Gartzia del Barko'rena. Manierismo-giroko arrilandua dauka, jainkozko onoiemen irudiakaz. 1546n. urtekoa.

+ Ugarte'ko Hurtun'ena. Au Santiago'ren Ordenako Zalduna, Errege-kontzeillukoa ta abar izan zan. 1634n. urtean il zan. Etxeko izkilluak.

+ JHS M.<sup>a</sup> Martin Gartzia de O11oki'rena. "Ugar-te" irudidun arri landua Beaugrant'eko Guiot'en Irudi-olatik ekarria. 1543n. urtean.

+ Beste illobiratu batzuk: 1379n. urtean Santiago'n illobia euken Arbolantxa, Zurbaran Legizamon eta abar sendiak.

25.- Gurrupide'tar Paulo eta Añoberos'tar Antonio, Bilbao'ko Gotzaiñak izan ziranen illobiak.

26.- Santiago'ren irudia, zurezkoa ta margotsua. Perez Komendador'ek egin eban 1956n. urtean.

OLAZAR'tar Martin'ek  
euskeratua



## ASPALDIKO ADISKIDE, AGUR

Aspaldiko adiskide, agur!

Aurreko baten ETB-n ikusi zindudazan. Bane-kian, izparringian agertzen zan zure izena eta, telebista saio baten agertuko zinala, eta poztu egin nintzan zugaitik, ain lotsorra izanez eta zure burua agertzea ain gitxi atsegin izanez, alako leku batera joaten ausartu zinalako. Nire poztasuna aundiagotu egin zan bertan ikustean, ez nengoalako ziur egunkariko zeu izango zinan, ala zeure abizen bardina daukan bataren bat.

Baina ara non joan ziran nire poztasun guztiak "kortako txizepozura" berbetan asi zinanean! **Batue-ra utsean!!** Zu, beti bizkaieraz eta baserriko euskera erabili dozuna, bizkaieraz asi eta ezi zaran ori, "zaarkeri" guztiak alde batera itzi eta "modaren" gurdian jesarri zinan.

Zure lenengo berbalditxoan, erriko eta baserriko kultura, uritarra biurtzen dagoala esan zenduan. Euskerari ere "antzerako" zeozer gertatzen jakola aide-razi gura izan zenduan?

Bizitzan zear birritan gertatu jat gauza bera, eta bietan euki dot zirrara berbera. Bata, orain denpora dala, nire lagun bat erderaz berba egiten entzun nebanean. Aurretiaz sekula ez neutsan entzun, naiz eta aspalditik ezagutzen ginan. Nire leenengo burutapena an aurrean egoana ez nebala ezagutzen izan zan. Antxe bertan, nire aurrean egoana sekula ikusi ez baneu bezela, nigaz sarritan berba egiten egondakoa ez balitz bezela; ezezaguna egiten jatan. Ain gauza arrunta izan arren, ez zan sartzen nire buruan erderaz jakin bear ebanik ere. Itzaldia amaitu eta bereala galdetu neutsan: Erderaz ere badakizu ala? Ez zan inola ere ezelango kexa edo aurpegira ezer botatzea, nire arridura azaldu gurea baino. Bere lanagaitik arrezgero eta sarritan erderaz entzun dodan arren, oraindik nire belarriek ez dabe oiturarik artu.

Antzerako gauza gertatu jat zugaz. Telebistari esker, bertan ikusi zindudazalako, jakin aal izan neban zeu zinala; irrastian izan balitz zalantzatan geratuko nintzan zeu zinan ala ez. Telebistan bertan ikusi arren, ezin sinistu! Zure izkerak zure abotsagaz ez eustan belarrira emoten. Bikoizketaren bat egin ete

eben saoiaren arduradunek? Deabruak edo sorgiñak ete egozan trasto madarikatu aretan sartuta zuri betiko izkeran ez entzuteko? Bazirudian "infernuko barrabasak" jira-biraka ebizela! Baina ez, nire itsukeria zan, deabruak eta sorgiñak, ez eta teknika berriek ere, ez eukien zer ikusirik. Ikusten nebana ez sinisteak sortzen ebazan nire burutapen arraro guzti areek.

Bertan egozan beste batzuk bizkaieraz entzuterakoan, zurea ez zala basamortuan agertzen diren moduko "espejismoa" konturatu nintzan. Ikusten nebana egia zan, su batueraz egiten zengozan. Zergaitik? Lotsa? Zerena? "Aldeanismoa"-rena? "Atzerakoi etiketa jartzearena? "Aurrerakoi" agertu bearra? Ez dakit, ez eta jakin gura ere! Ziur nago, zu ezagutuz, zure arrazoi sakonak eukiko zenduzala egin zenduana egiteko, eta ni ez naz inor zure jokabidea epaitzeko. Jaunak libra naiala orretatik! Ez egizu gutun au salaketa modura artu, nigan sorturiko sentimenduaren agerpen bat bezela baino. Zelan edo alan, an ikusitakoak, nigan sortu ebazan sentipen kontrajarriak, eta azaldu jatan zirrara adierazi gurea baino ez da guzti au.

Eta azkenik, naiz eta bearbada emendik asi bear-ko nintzan, parkamena eskatzen deusut. Badakit zenbat kostatuko jatzun telebistako makinan aurrean jartzea, zenbat logure-ordu galduko zenduzan, norainokoa izango zan zure urduritasuna... eta ori gitxi bada, gainera au!

Parkatu zure kasua erabiltzearen beste askoren jokabideak salatzeke. Badagoz kasu asko euren aginte-ardureagaitik eredu izan bear direnak, eta sarritan agertzen direnak egunkari, irrati, telebista eta abarretan, baina emoten daben adibidea ez da bat ere izan bearreko eredia. Eta argi itzi gura dot au ez dala zure kasua.

Noiz ikasiko ete dogu izkuntza baten aberastasuna ugaritasunan dagoela eta ez erreztu edo legeztatu asmoaz mugak jartzean, baliogabetzat joaz erabilgarririk diran orrenbeste gauza; batez ere izkera eta nortasun baten ezaugarriak direla kontutan izanik.

Enrike Itxasalde

---

# PAOLO FREIRE

## Legegizon eta ezitzaille ospetsua

### 1921 EAN REFICE-N (BRASILEN)

### JAIO ZAN

---



Aita espiritista, ama berriz katoliko. Aitak amari zion errespetoan ikasi zuan berak iñorenganako begirunea izaten.

1931. Urteko gosetea zala kausa, Refice-tik Pernambuco-ra. Emen, aita il ondoren, ikasi omen zuan gosearen samia zer dan eta gizartean maizegi gauzak okerbideetik nola dabilzan. Neke askoren artean abogadutzari eldu zion eta izkuntza-legeak ikasteari.

.X\*

Gazterik ezkondu zan, Brasilen oitura zanez, eta aurrak etxean agertzeaz batera asiera eman zion, sistemaz eta arretaz, ezikerari buruzko azterketari.

Erri-ezikera eta Erri-kulturaren sortzailleetako bat zan Brasilen 1961 urtean. Ekintza artatik sortu zan Alfabetatze sistema. Geroztik -1964 urtean, giltzapean egona degu.

15 milloek analfabeto zeuden 25 milloek bizilagunen artean, Brasilgo Ipar-sortaldeko inguru guzian: %60. Mixeri ura ikusita asmatu zuan Alfabetatze Ekintza.

Asi zan lanean, eta bi illebete baiño leen, irereun langilek ikasi zuten irakurtzen (analfabetoak ez zuan botorik eta irakurtzeaz batera, politika arazoetan beren buruen jabe egiten zituen).

Sistema ona zala ikusirik Gobernuak bere ura aurrera eramaten lagundu zion, eta 20.000 alfabetatze-batzoki sortaraztea erabaki zuten.

Batzoki bakoitzak, 30 lagun alfabetako zituen bi illebeteren buruan.

Freiren asmoa ez zan gizonari liburuak irakurtzen erakustea bakarrik; bere asmoak gorago jotzen zuten: gizonari askatasuna eskeiñi nai zion. Aurretik erakutsiko zion, analfabeto bazan ere, ez zala ez-jakiña eta kulturarik gabea, kultura-gaiak zabalak bait dira eta irakurtzen ez dakien zenbaitek kultura zabal eta sakon baten jabe gertatzen da.

Irakurtzearekin batera bere erriaren berri emango zion (politika, ekonomia, gizarte-auzia eta abar) bide ortatik gizona buruaren jabe egiteko.

Bere Ianetan bigarren oni geiago begiratuko dio irakurtzeari baiño.

Freiren pentsaera eta sistema obeto ezaguteko bere oien oiñarrian dauden funtsezko ideiak agertuko ditugu emen.

#### GIZAKIA EZ DA ESKUZ LANDU DITEKEEN GAUZA UTS BAT

Freire eziketaren oiñarrian ideia auxe aurki genezake: gizonaren eziketa bearbezelakoa izango bada, aurretik eta sakonki, gizaldi ori zer dan eta bere ingurua nolakoa dan, pentsatu, aztertu eta ausnartu bear da, alegia.

Bestelako bidetatik bagabiltza, gizona gauza utsa bezela tratatzeko arriskuan eroriko gera; gizona ez bait ada gauza utsa, pertsona baizik.

Ez da zer, nor baizik.

Ez da idazki utsa, bere buruaren jabe bear duen izazki baizik.

Bere bururaren jabe bear duen gizaki ori, inguru batean bizi da eta inguru orretatik artu bear du eziketak bere asiera.

Gizakiaren inguruetakoa gertakizunetatik asi bear.  
Ze korapillotan, ze problematan, ze naastetan bizi daa  
ezi bear degun gizaki ori?

Ortik ariari eldu.

Ortik as eta gai oiek erabil eziketa lanetan; ez beintzat,  
Napoleonek Rusian izan zituen auzi-mauzietatik.

Alfabetatze lana astea ako, aurretik, alfabetatze bear duen  
gizaki orrekin arremantetan jarriko du bere burua Freirek.  
Zertarakok?

Gizarte orrek bere eguneroko gora beeretan darabilz-  
kien itzak ikasteko. Itz oiek erabili bear bait ditu maixuak  
gizarte orri idazten eta irakurtzen irakasteko. Eta itz oien  
medioz ezagutu ere ezagutuko ditugu gizarte orren auziak,  
korapilloak eta prolemak. Auzi oietatik asi bear du, ain  
xuxen ere, errelitate osoaren agerpena eta esplikazioa.

Eziketa bear bezelakoa izango bada, gizona zer dan eta  
nola bizi dan, begien aurrean eduki bear irakasleak.

## II

### GIZONA BERE BURUAREN JABE ETA INGURUAREN AZTERTZAILLE

Freire erakutsien bigarren oiñarria auxe litzake: gizona  
bere buruaren jabe eta bere inguruaren aztertzaille bear  
du izan.

Eta nolatan egingo da gizona ber buruaren jabe?

Azterketaren bidez. Zer aztertu, orde? Bere burua,  
bre buruaren egoera eta bera inguruarena.

Azterketa geiago eta bere buruaren jabeago.

Zenbat eta bere buruaren jabeago, ainbat eta ekintzara-  
ko erneago. Ainbat eta ber ingurua aldatzeko prestuago.

Eziketa lanean, Freiren leendabiziko lana, fotografia  
bat aukeratzea da eta ikasleeri begien aurrean jartzea.

Ze argazki aukera?

Ikaslea bizi dan gizarteko auziren bat erakutsiko duen  
argazkia. Argazkia izan ala marrazkia izan, berdin da lan  
ontarako.

Argazki ori aitzaki dala, alkarriketa sortuko da ikas-  
leen artean. Esate baterako, inguru artako auzia, eta kora-  
pilloa gosea balitz, Vietnam-go aur ankamee tripaundi  
baten argazkia izango litzake aukerakoa gerra zitalen oke-  
rrak agertzeko (gosea okerren artean bat). Edo eta, beste-  
la, aundiki eta aberatsen arteko bazkeri ikaragarri baten  
argazkia (aberastasunak ez daudela neurri berean banatu-  
ta, alegia, gure gizarte onetan). Batzeik gose, bestek  
dijestioa egin ezinik.

Gizona bere buruaren jabe egin nai du Freirek eta  
gizarteko prolemak aztartzeko gauza. Aztartze orrek eka-  
rriko dio aukeratzeko aalmena eta gizartea abere gogoa-  
ren neurria aldatzeko kapazidada.

Beste zenbait pedagogik gizona gizartearen era eta  
neurria ebakitzen eta plasmatzen du; Freirek nai duena  
berriz, beste era batera dator: gizonari indarrak eman, ale-  
gia, gizonak berak gizarte4a alda dezan bere buruaren  
neurrian.

Gisa orretara gizon berriak bide berriak urra ditzan.  
Bakoitzak bere bide berezia aukera dezan.

## III

### GIZAKIA EDINTZETAN EZITZEN DALA

Gizarteko egoera aztertu ondoren, bere burua ekintze-  
tarako jartzen duan neurrian egiten da gizona bere burua-  
ren jabe eta neurri berean ezitzen.

Y

Gizonak ingurua aztertu ondoren, ikusten du, bere  
burutik at, badala beste mundu oso bat: belar zuaitz, txori,  
arrai, abere, arriak... Oiekin batean giza- seme ta giza-ala-  
bak ere. Baita Jainko bat ere, beste guzien oiñarri. Eta,  
konturatzen da ere guzi oiekin arremantetan jar desakeela  
bere burua gizonak.

Ze arremaneTan?

Ez azala ikatzen dutenak bakarrik, ez; arreman sako-  
nagoak ere baditu gizakiak gizakiekin azaletik kanpora.  
Gizakien arremanak, alkarrekin dituztenak, ez dira ani-  
malien artekoen antzekoak; animaliak, alegia, berezko  
lege-itsu batetik ekiten diote eta ikutu utsetan amaitzen  
dira beren arreman oiek.

Gizarteko arremantetan, berriz, buruak eta biotzak, adi-  
menak eta gogoak dagite.

Oiek orrela direla, arreman oien bidetik egiten da  
gizona bere buruaren jabe.

Arreman oietaan burua dagoela izkaturik ere kontura-  
tzen da gizona.

Izadi osoak burrukarako axatzen du gizona eta onek  
nai-ta nai ez, burrukari ekin bear izakiak menperatuko  
baditu.

Izadi osoak egiten diona egiten dio gizarteak ere gizo-  
nari: menperatu, alegia, gizartearen erara gizon bakoitza  
moldatzeko. Gizarte-egiturek gizon soilla menperatzen  
dute, gizona bere egitura oien neurria ebakitzeko eta  
orela, buru-jabetasuna kendu, gizarte berorren probetxu-  
rako. Orra gizona gauza uts bihurturik.

Gizon bakoitzak (Freirek dionez) egoera bakoitzari  
erantzun berezi bat ematen dio (eta eman bear).

Bestereen erantzunak ez dio balio.

Berak eman bear erantzun berezia.

Egoera bakoitzean erantzunak asko dira; bideak eta  
erabakiak ere bai. Gizon bakoitzak nork bere erantzuna  
eman bear, bidea aukera bear, erabakia artu-bear. Une ar-  
tantxe, erantzuna ematean, ari da gizona bere burua ezi-  
tzen, bere buruaren jabe egiten.

Ikusi, aztertu, ekin.

## IV

### GIZONAK SORTZEN DUAN ORO DA KULTURA

Gizonaren inguruak (naiz gizakietatik naiz beste iza-  
kietatik sortzen dan inguruak) gizona menperatu nai.

# OSPETSUAK

Gizona inguru orrekin burrukan.

Burruka ortatik sortzen diran pentsamentu, nai eta egitate guziek osatzen dute Kultura izenaz ezagutzen degun zer ori.

Freiren iritzirako ez da Kultura liburuak irakurtzea eta besteren ideiak artzea, besterik gabe, ez; ori ez omen da Kultura.

Zer da ba zorioneko Kultura ori?

Gizonak sortarazten duen oro da Kultura. Izakia, berriz, berez dana da, gizonaren ikutirik gabe.

Izadiak, diran guztiak, gizona menperatzen zuan asiera-asieratik; baiña, gizonak burrukari eldu zion izadia menperatzeko eta burruka ortatik sortu zan, koba-zuloe-tan asi ere, gizonaren Kultura. Arri-arotik ezezik, baita ezur eta egur-arotik bertatik: piztien kontra egur bat arma bzela artu zuenetik, alegia.

Burruka ortatik sortu ziran lanabesak, sua, errota edo kurpilla, izkuntza eta erlijioa, aizkora eta atxurra, zula-kaitza eta jostorratza, leireparetetako marrazkiekin batera. Artzantza eta nekazaritza, salerosketak, arrantza eta olagmtza.

Denak dira Kul tur baten agerpenak.

Gizarteko arremenetarako egiten an lan guzia da Kultura.

Bestek irakatsitakoa ere Kultura izango da, baldin egintzetan mamitzen badegu irakaspen ori, bestela, memorian gorde eta besterik gabe, ez litzake kultura izango.

Analfabetoak (alfabetarik ez dutenak, alegia, irakurtzen ez dakitelako) poz eta askatasun aundia artzen dute barnean oiek entzutean. Irakurzen ez badakit ere, orrek ez du esan nai kultura gabeak diranik. Mundu zabaleko analfabetoak ere badute beren esplotatzailleek adiña kultura, kultura oiek klase berdiñekoak ez badira er.

## V

### ERRIAREN HISTORIA ZERTAN DAGOEN

Gizonak bere inguruaz duen burrukatik sortzen da erri baten istoria. Bere oietatik sortzen da kultura ere. Kultura ori da, berez, istoriaren gaia. Erri baten istoria bear bezelakoa bada, erri orren kultura osoaren kondaira izanen da...

Zenbait istori-liburu irakurtzen degunean gudarien burrukak besterik ez ditugu irakurtzen. Erri baten istoria gerra kondaira besterik ez al da? Ez iñundik ere. Erri baten egiazko istoriak burruka oiekin batera burruka guziak (kulturaburrukak, alegia) erakutsi bearco ditu. Bestela, ez da egiazko istoria izango, giak osotasuna eskatzen bait du.

Gizonaren burrukak zein diran esanik daukagu: inguru guziakin dituen burrukak. Izadia da gizonaren inguru, naturaleza, alegia. Izadia eta gizadia. Oiekin izan du,

asiera-asieratik, bere burruka gizonak. Burruka orren fruituek osatzen dute gizonaren kultura eta kultura onen istoria da gizonaren eta erri bakoitzaren istoria.

Gizon bakoitzak istoriaren aurrean bi eratara joka dezake: istoria zuzentzen eta eratzen saiatuaz; bestela, berriz, istoriaren ujoletan bere burua botaz. Zuk istoria zuzendu eta eraman aurrera; edo istoriaren uretan eramana izan. Orra bi postura desberdiñ. Zuk istoria egiñ; edo istoriak zu egiñ.

Istoria gizonaren esku dago.

Baiña, nolatan egingo du gizonak istoria?

Leenik bere garaiko bearbizunak ezagutu eta, ondoren, bear oiei erantzun, ekintzen bidez. bear oiek ezagutzeko aalmenik ez badu gizonak, istoriaren ur-bizietan egur-ezpala bezela eramana izanen da. Ezagutu eta aztertu eta ausartu. Gero, ekin lanean bear bezelako erantzuna emateko.

## VI

### IKUS, AZTER, EKIN

Eziketaren elburua gizona bere buruaren jabe eta inguruaren aztertzaile egitea da, inguru ortako korapilloak askatu arte burrukan salatuaz eta bide ortatik kultura sortu eta istoria egin.

Kontzientziaztea (bere buruaren jabe gizona egitea, alegia) orixe da eziketaren leenengo lana. Bere buruaren jabe egin inguruari buruz. Bere inguru ortako korapillo eta prolemen berri jakin eta korapillo oiek askatzeko aalmena baduela gizonak beregan, alegia.

x\* ~

Ikus, azter, ekiñ.

Orra Freire gaztea Cardyn zaarrarekin bat. Freire jaio-terako Cardyn beljikatarrak, berak asmatutako J.O.C. bazkunari eziketarako bide auxe erakutsi zion: ikus, azter, ekiñ.

Zaarrak berri.

Freire gazteak Cardyn zaarraren bideak billatu zituen berriro.

Biak batera datoz: ezikera orizontalki, zearka eta aldamenka billatu bear dala eta alkarrizketaren medioz billatu ere. Goitik beerako erakusketak ez omen du ezten ez mai-xua eta ez ikaslea.

Eziketaren ukatze utsa omen da, Freirek dionez, goitik beerako erakutsia.

Guk ez genduke orrenbesterik esango. Dana dala, egiazko eziketak egin dezake alkarrizketarik bazter, ezta eguneroko gauzen azterketarik uka ere (errealitatearen analisa, euskera mordoilloan esanda).

Auk, lirake, itz gutxitan esanda, gizonaren askatasuneko Freirek asmatutako eziketa baten oiñarrak.

LAZKAO'KO ANES'ek (1972)



# EUSKERA, GAZTEIZ'KO SEMINARIOA TA D. MANUEL LEKUONA

Seminarioko aula batean gaude.

Ikasle batek bere euskal-lana irakurri du.

— "Orain, Txomin Loinaz jaunak egingo du lan orren azterketa" -dio D. Manuel'ek.

— "Ba, lan onetan arkaitz asko billatu ditut..."

— "Ze arkaitz, gero?"

— "Barkatu, "akatsak" esan nai nuan..."

Philosophuak giñan orduan.

Urteak: 1930-31.

Primo de Rivera'ren diktadura bukatu eta lo-zorrofik esnatzen ari giñan. Euskera gaiztoa erabiltzen genduan, baldin euskerarik erabiltzen ba gendun.

Euskera ikasten asteko edo ta zekitenak obeto jakiteko, euskera-ikastola iriki zuten Seminarioan.

Maiburuan D. Manuel.

Gu giñan ikasleak.

Liburua, Elizbarrutiko Euskerazko Ikas-bide edo Dotriña.

Dotriñatik gaiak artu eta konposizio txikiak egiten giñuzten. Konposizio oiek egilleak irakurtzen zitun eta beste batek kritika egiñ, "arkaitz" billa.

Arkaitzak eta akatsak, danak, naasten giñuzten.

Ezjakiñak giñan.

Gaur askok euskera badakigu, dakigun apurra (nik beintzat bai) orduan ikasitakoa degu, D. Manuel maixu zala.

Bost-sei urte aietan Gazteiz'ko Seminarioan, Euskera-ren alde, ze lan egin ziran. Jainkoak daki.

Lan guzti oien buru, beti Don Manuel.

Berak argitu zigun gure barruko illunpeak, eta agertu Euskeraren ederra ta Euskeraganako bideak.

Bere aotik entzun nuan len-da-bizi "elemento inquirido" dalako ori, ta egi-egitan, izugarritzko argia egin ditela beti Euskeraz idazteko "elemento" orrek.

Loidi, sukia, Otamendi... ezagunak ziran Eusko-Olerki sariketetan. 1936 urteko bi lendabiziko sairak Sukiak eta Otamendik eraman zituzten. biak ziran apaizgai. Biak ziran apaizgai. Biak Gazteiz'ko Seminariokoak, biak Don Manuel-en ikasleak.

\* \* \*

Bañan etzan olerkia bakarrik erabiltzen euskeraz. Or egongo dira, baztarren batean gordeta, KARDA-

BERAZ errebigaren aleak. Etzan ez Philosophian, ez Teologian, an erabilliko etzan gairik. Euskera jatorrean erabilli ere, mordollo ulergaitzikan gabe.

Arizmendiarieta, Albisu, Irigoien, bi Sukiak, Arostegi, Narbaiza Raimon, Zubillaga. Irigaray, Zamora, Etxeberria, Zuloaga, Esnaola, Otaitz, Larrañaga... eta abar.

Zenbaitek etzitan errebigista arretan bere saiotoxak egin...!

---

Baña etzan errebigista bakarrik.

Euskeraren aldeko batzarrak ere bagiñuzten geuren artean.

Euskera ikasi, Euskera landu, Euskera zabaldu...

Zenbat ames!

Don Manuel'en gela, ames-gela zan.

Euskera eta Euskal-erriaren aldeko amesak.

Guztiak bete ezarren, azia zabaldu zan lau egoetara.

Aziak etziran alperrik galdu.

K ~ ~

Erdaldun askok (rabar, bizkaitar ta gipuzkoarrak) Euskeraz ikasten orduan asitakoak dira...

Euskaldun berri asko sortu zan.

Neronek ere euskaldun berria bezela jotzen det neure burua.

Orduan asitakoa.

Lan oiek gutxi ezpadira ere, Don Manuel'en lanak etziran oiekin bukatzen.

Gerra aurreko azken urtean, Euskalerriko Kristau Kondaira estudiatzeko "seminario" txiki baten buru zan... urte-beteko bizitza bakarrik izan bazuan ere "seminario" arrek.

Ekaitzak eraman zuan aidean orbel igarra bezela.

Etzan alperrikakoa izan ala ere. Andik sortutakoa degu Andres Eliseo Mañarikua jauna, bizkaitarra, Euskalerriko Kristau Kondairaren gaitan iñor ez bezelakoa...

Izenak aitatzea askorekin gaizki gelditzea da.

Barkatu.

Loretigitik lore guztiak arterik ez neukan. Lore-mota batzuek naikoak ziran nere gaierako.

A. ARRINDA (1967)

## ORDENAGALLUAK

Ordenagallu bat erabiltzen, guztiok ikasi bear genduke, besterik ez ba'da idatz-makinaren ordeaz erabiltzeko. Arazo au ingles-izenez josita dago eta ori zenbaitentzako naiko akats aundia da; apaizok, beintzat, obeto gabiltza latin eta griego izenen artean, ingles itz artean baiño.

### Ona lenengoko izen ingles bat: Byte

Diska batek zenbat gorde dezaken neurtzeko Byte izena erabiltzen da eta euskerazko Bat'eri dagokio. Tarte bat esan nai du. Zenbat tarte dituen diska batek Byte'kin neurtzen da: Onenbeste Byte, Onenbeste Bateko.

### Byte da Bat

Izki bat, zenbaki bat, kiñu bat, utsune bat edo kontrolako ziñu berezi bat.

### Ona bigarren itza: K.Byte eta Kilo Bat esan nai du

Kilo, berriz, millaren neurria da. K.Byte da Millako Bat tarte.

### Irugarren itza: M.Byte eta Milloi bat Byte esan nai du

Milloi bat Bateko, milloi bat izki, ziñu, utsune...

Byte = Bateko bat.

K.Byte = Kilo bat Bateko.

M-Byte = Milloi bat Bateko.

Gure esku-arteko ordenagalluak Byteaz neurtzen dira: Onenbeste Byte. Aundiagoak diranean, Kiloka asten dira neurtzen, Millaka: Onenbeste K.Byte. Oso aundiak diraneak, orduan Milloika neurtzen dira, Milloika Bateko, M.Byte.

Dakientzako gauza aukeratu batzuek besterik ez

dira; baña, ez dakiñak, itsuaren antza du. Itsuentzat ari Bera; besteek badute nun ikasi.

Idazteko aña ikasten ba'degu, apurtxo orrek lana erreztuko digu, bai okerrak zuzentzean, bai zati berriak sartzeko, bai lanak gordetzeko eta abar. Ikasteko artzen diran nekeak eurak dakarte beuregan euren saria.

Ordu asko ordnagallu-aurrean lan egin ezkeror, nekeak alde askotik agertzen dira: Lenengo ta bat eserlekuaren-gaitik; biguña bear du izan, zapal-gunea zabaldu dedin eta atzetik eutsigarria eduki, bizkarrakin noiz-beinka idar egiteko atzera burua botaz... Belaunen parean egon bear du, bost zentimetro goraxeago... Silla ohea eta lana erre-zago. Burua eta gorputza zuzen; baña, indarrak artarako egin barik. Tarteka lan-aldia eten, beti ere berean luzaro irautea aspargarria bait da eta eraman-eziña. Ipur-masalla gañean eseri bear da eta ez iztar gañetan.

Ordu luzeetan ordenagallu aurrean irauteak baditu bere arriskuak, bai begientzak eta baiata aurpegiaren azalarentzat ere. Geneak ere aldatu ornen ditezke, pantallatik sortzen diran izpi edo tximist txiki oiengandik... Baña, orrelakoak gertatzeko, denbora luzeak bearko ditu...

Ordngallu baten aurrean, ordu asko igarotzen diranean gorputz-aldaketak egin bear dira gixa onetara:

1.- Eskuak buru gañean gora begira ipiñi, beatzak beatzetan alkaturik eta gero eskuak gorputzaren aldarne-netara jetxi.

2.- Sorbaldak jaso belarrietara eta jetxi.

3.- Gerrikoa askatuta eseri lanerako eta noiz-beinka, lepo-Sorbaldak zuzen dirala, gorputza atzera-aurrera eragin.

4.- Ukalondoak maai-gañean eta eskuak bekokian dirala, le-posamak astiro makurtu eta gora jaso.

Ordenagallua erabiltzen ikasteko bear dan neke-aldia artzen ba'dezu, zeure lan berriak berak emango dizu poza.

A'tar A.

## ZENTZUNA

Pasio zikiñak eraginda gure arteko gerrate otz batean bizi gera gaur eguneko euskaldunok. Orretzek zikintzen digu, gure jokabidearen jatortasuna. Gure begietatik kutsua dario...

Kolorea degu begi-ninietan.

Orretzek margotzen ditu gure asmoen ur gardenak. Iñoren kolore bizienak ere, gure begietako koloreakin naastuta, gris tristea besterik ez digu ematen..

Gris tristea inbidiaren ori melarrakin naasian.

---

PERRET'XIKUEN MUNDUA (DEIA 27-IV-1994)

---

ETB-1 ikus-irradiak agertuko dituen 13 ekiñaldik osatzen dute "Perretxikuen Mundua". TRK taldeak egiñak eta Bilbao Bizkaia Kutzak babestua.

— Ez al dago naiko perretxukuzale ala?

— Orregaitik ba, asko daudelako lagundu bear zaie obeto perretxikuak ezagutzen. Eta orixe da lortu nai duena BBK'k.

—Zenbat ekiñaldi esan dezu?

—Amairu ekiñaldi 15 minutukoak. Berandu xamar: baña, Video bidez artu bearko.

—Amairu ekiñaldi dira eta nola sakabanatzen dira amairuak?

—Lenegoko bostak emango digute perretxikuen mundo zabala; ondorengoek, berriz, perretxiku txarren eta onenen berri eta azkenengo laurak onak eta txarrak alkarrekin jarriko ditu bereiztasunak ezagutzeko eran, askotan berdintxuak izaten bait dira ona eta txarra.

—Eta, geiago zer?

Eman-aldi bakoitza amaitzean, sukaldari bizkaitar batzuek nola perretxikuek prestatu erakutsiko digute. Roberto Lotina'k egin du lanaren gioia, Kutzak babes-tu eta ETB' ek atara.



*Juan Maria S6enz Buruaga, Roherto Lotina ta Mikel Lejarza aurkezpenean.*

BARTOLO ARROPAIN'GO

## ZENTZUNA

Errioxa'ko bodega-suloetan eroslea ardo-probaketan.

Leiarrezko basoan su-gar antzeko ardo garbi dizdiratzallea atera dio nausiak:

—Iru urteko ardoa dezu.

—Kolore ona du. Garbi dago iturburuko ura baiño geiago.

—Ta gustoa...?

—Gustoa ere ona... baiña, usai txarra!

Ez da probalaria txantxetan ibilli esanbearrezkoa esateko. Gauzak orrela bear dute, argi ta garbi. Zalan-tzarik gabe.

Nausiak atera dio beste ardo obe bat.

— Torizu beste au. Bost urte ditu. Udazken legorra

izan gendun urte artan eta bere gradotxoak ere ba ditu ardo onek...

—Ardo ederra... baiña, utsai txarrekoa au ere!

—Ikusi ta txastatu aurtengo ardo berri bizi au.


—Bai... baiña, usai txarra onek ere.

—Aizu, konpañeo-erantzun dio ardo-nausiak zinzurreraiño beteta-nere ardoak ez dute iñungo atsik. Kendu ezazu zure gaiñetik soiñeko zikiñ ori eta ikusiko dezu nere ardoek ez dutela atsik dario... Usai txarreko zikiña zeuk daramazu zeure gaiñean...!

\*\*\*

Ez ote diogu geuk ere iñoren ardoai geure buruaren atsa iñoiz erantsiten...?

# IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko  
Kutxa. Bere berbea bete  
eta zure bear-izanak  
ulertzen dauzan Kutxa.  
Etorkizunera zabalik dagoan  
Erakundea, etenbako  
gora-gogoagaz  
bere erriko jenteari  
laguntza-gai osoak  
eskintzen dautsozana.  
Beti dago zugandik ur  
izkuntza bakar baten  
alkar ulertu daikegun.*

**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa